

Elizen Arteko Biblia

TALDE LANEAN

Elizen Arteko Biblia

Asko kostatu zitzaigun Bibliaren gure itzulpen honi izen hau jartzea. Alde batetik, katolikoen eta protestanteen artean egina zelako, alderdi hori agertu nahi genuen izenburuan. Bestetik, inguruko hizkuntzetan egindako itzulpenetan, «konfesio arteko» terminoa erabiltzen dute aipatu kontzeptu hori agertzeko. Euskaldunoi ez zitzaigun egokia iruditu besteen termino hori. Azkenean, bat etorri ginen guztiok eman genion izenarekin.

Biblia euskaratzeko asmoaren sorrera

Bi talderen asmoak bateratu ziren 1970eko hamarkadaren hasieran: alde batetik, protestanteak ordezkatzeko dituen Bibli Elkarte Batuak izeneko taldearena eta, bestetik, garai hartan Loiolan urtero elkartu ohi zen erlijiosotalde batena.

Bi taldeen ordezkariak (ez ziren formalki izendatuak izan, baina Loiolan amestutako asmoa zen), zenbait bilera egin ondoren, 1977ko apirilaren 21eko bileran Bibliaren itzulpengintzaz Mintegia egitea eta jende-sail bat hartara deitzea erabaki zuten.

Bibliaren itzulpengintzaz Mintegiak

Esan bezala, dei zabala egin zen eta aipatu urteko irailean 30 lagun inguru elkartu ziren Arantzazun. Mintegi honetako irakasleak Alemaniako irakasle sonatu bat, Peter Rüger, eta Madrileko beste bat, Ignacio Mendoza, izan ziren. Bibliaren itzulpengintzak planteatzeko dituen arazo berezietan (duela 2000 urteko testua, kultura arrotza, literatur mota asko...) jardun ziren. Itun Berria euskaratzeko asmo soilak izan zen hasieran.

Mintegia bukatzean, itzulpenari ekiteko prest zeudenen izenak bildu ziren. Handik aurrera, talde horren esku gelditu zen lana; beti ere, ordea, Bibli Elkarte Batuen izenean, Ignacio Mendozak hurbiletik jarraitu zion lanari. Euskal Herrian bizi ziren oinarriko zenbait protestanteen aurreiritzien aurrean erabakiak hartzeko orduan garrantzizko zeregina izan zuen Mendozak.

Gerora, Itun Berria euskaratu eta argitaratu ondoren, eta hiruzpalau urte atsedenean igaro ondoren, Itun Zaharra euskaratzeko asmoari ekin zion aurreko taldeko kide-sail batek. Honetarako ere Mintegia antolatu zen lehenik eta behin. Oraingo hau Lazkaoko Beneditarretan egin zen. Irakasleak Frantziako Jan de Ward eta Italiako Carlo Buzzeti irakasleak izan ziren.

Itzulpen-laneko prozedura

Bai Itun Berrikoan, bai Itun Zaharrekoan lan-prozedura berdintsua izan zen. Halere, Itun Berrikoa astunegia eta korapilotsuegia (talde txiki asko, itzultzaile asko, talde osoko bilera asko...) zela ikusirik, asko arindu zen prozedura Itun Zaharraren kasuan. Baina, esan bezala, funtsean, bat bera izan zen bi kasuetan.

Alde batetik, oinarrizko itzulpena talde txiki batek (bizpahiru lagune-koak) egin ohi zuen. Ondoren, taldekide bakoitzak bere iritzia ematen zuen idatziz. Talde txikiak, iritzia jasota, berraztertu egiten zuen bere lana. Eta azkenean batzar nagusira pasatu ohi zen emaitza, zintzilik gelditzen ziren arazoak konpontzeko. Esan behar da, talde txiki bakoitzean, gutxienez exegeta edo biblialari bat egon ohi zela, testua jatorrizko hizkuntzatik kontrolatzeko, eta bat edo bi euskal itzultzaile trebeago.

Itzulpenerako oinarrizko irizpideak

Hasteko, itzulpena euskara batuan egitea erabaki zen, lehenengo Mintegian jadanik. Garai hartan ez zen hori artean gaur bezain begi-bistako erabakia, batez ere Eliza Katolikoaren arduradunen artean.

Bestalde, lehenago esana denez, elizen arteko itzulpena izango zen: katolikoan eta protestanteen artekoa (gauza jakina denez, ortodoxoek ez dute ordezkorik, esateko, Euskal Herrian; horregatik, ezin deitu ziezaioketen ekumeniko esku arteko itzulpenari). Horrek ere arau batzuk bete beharra zekarren: horrelako itzulpen-kasuetarako Vatikanokoak eta Bibli Elkarte Batuak-ek hitzarmenduak zituztenak; besteak beste, ezin emango zen itzulpenean ohar doktrinalik.

Itzulpen-irizpide zehatzagoak

Atzerriko zenbait lurraldetan, Bibliaren itzulpengintzan, indar handia hartua zuen ordurako baliokidetasun dinamiko funtzionalaren joerak. Hitz gutxitan esateko, honetan datza joera hori: hitzez hitzeko itzulpena baino gehiago, adiera bizia kontuan hartzean; baliokidetasun formala baino gehiago, adierari dagokion baliokidetasuna kontuan hartzean; jatorrizkoaren hizkera ongi eta leial ulertu eta interpretatu, eta, xede hizkuntzaren izaera kontuan hartuz, mezua era argian eta bizian ematean.

Joera hau, EABren itzulpenean, biziki areagotu zen Biblia osoa euskaratzeari ekitean, 1986tik aurrera.

Kontua zera da: eskuarki ondo ulertu gabe erabili ohi diren terminoak, esapideak eta esamoldeak, xede-hizkuntzan era argian eta ulergarrian eta sarkorrean ematea; izan ere, Bibliaren irakurleak ez du zertan izan exegeta edo teologo. Joera honen adibide batzuk emateko, hona: «justizia» ordez «salbamen-indarra» erabiliko da (Erm 3,21), «justifikatu, justifikazioa» ordez «Jainkoak onartu» erabiliko da (Erm 3,24.28), «tradere, traditio» euskaratzeko «eskualdatu» esango da (1 Ko 15,3)...

Esandako irizpide horrez gain, baina hari beretik, beste hainbat puntu landuko dira:

- esaldi luzeak puskatu egingo dira;
- puntuazioa oso kontuan hartuko da, testua ahalik eta ulergarrien egiteko;
- askotan subjektua esplizitatu egingo da; adibidez, «bere merezia hartuko du, *Jainkoak* ez baitu bereizkeriarik egiten» («Jainkoa» gehitu da: Kol 3,25); «dohain hau eman dizu *Jainkoak*» («Jainkoak» gehitu da: Flp 1,29).

Hiztegiari eta aipatu beste irizpide horiei ez ezik, jatorrizkoko irudi literarioak (metaforak, aliterazioak, paralelismoak...) itzultzeari ere arreta berezia eskaini zaio. Horretarako, laguntza handikoak izan dira inguruko beste hizkuntzetan emandako irtenbideak.

Hitz batean esateko, sinplekerian eta geldotasunean erori gabe, itzulpen laua, argia, bizia egin nahi izan da. Vatikano II.a kontzilioko Dei Verbum-ek (22 zk.) ere hala eskatzen du: Biblia erraz irakurtzeko aukera izan behar dutela fededunek.

Beti ere, jatorrizko testuarekiko leialtasunari sendo eutsi nahi izan zaio. Horretarako, itzultzaile-talde txiki guztietan exegeta batek jardun ohi zuen eta bilera orokorretan bik edo hiruk, jatorrizko testua zuzenean kontrolatzeko. Horrez gain, itzultzaile guztiek inguruko hizkuntzetako hainbat Biblia izan dituzte beti eskura.

Argitalpenak

«Itun Berria»ren lehen argitalpena 1983an egin zen PAX argitaletxearen eta Bibli Elkarte Batuak-en eskutik. Bigarren argitalpena, berriz, 1987an egin zen.

«Elizen Arteko Biblia»ren argitalpena Euskal Herriko Gotzaindegien eta Bibli Elkarte Batuak-en eskutik egin zen 1994an.

Gerora, beste hainbat argitalpen egin dira:

- 1995ean «Itun Berria hirueleduna (euskara, latina eta grekoa)» argitaratu zen;
- 1997an «Elizen Arteko Biblia. Itun Berria» argitaratu zen.
- 1998an «Elizen Arteko Biblia» (formatu txikian) argitaratu zen. Gero-
ra, bigarrenez argitaratu da formatu hau.

Une honetan, «Elizen Arteko Biblia»ren (formatu handikoaren) 2. argitalpena prestatzen ari gara.

Itzultzaileak

Dionisio Amundarain; Jose Luis Aperribai, Jose Arregi, Jesus Maria Arrieta, Ramon Irizar, Iñaki Mendiguren, Joan Maria Olaizola, Kasimiro Joan Jose Perez, Jose Maria Rementeria, Enrike Zabala, Lorentzo Zugazaga.

Dionisio Amundarain

Elizen Arteko Biblia

TALDE LANEAN

Has 1,1-5

- 1 בְּרֹאשִׁית בָּרָא אֱלֹהִים אֶת הַשָּׁמַיִם וְאֶת הָאָרֶץ:
 2 וְהָאָרֶץ הָיְתָה תָהוֹ וּבְהוּ וְחֹשֶׁךְ עַל־פְּנֵי תְהוֹם וּרוּחַ אֱלֹהִים מְרַחֶפֶת
 עַל־פְּנֵי הַמָּיִם:
 3 וַיֹּאמֶר אֱלֹהִים יְהִי אוֹר וַיְהִי־אוֹר:
 4 וַיֵּרָא אֱלֹהִים אֶת־הָאוֹר כִּי־טוֹב וַיְבָרֶךְ אֱלֹהִים בֵּין הָאוֹר וּבֵין הַחֹשֶׁךְ:
 5 וַיִּקְרָא אֱלֹהִים לְאוֹר יוֹם וּלְחֹשֶׁךְ קִרָּא לַיְלָה וַיְהִי־עֶרֶב וַיְהִי־בֹקֶר יוֹם אֶחָד:

¹ Hasieran, Jainkoak zeru-lurrak egin zituen. ² Lurra nahas-mahas hutsa zen: leize handiaren gain ilunpea. Jainkoaren arnasa uren gainean zebilen.

³ Eta Jainkoak esan zuen: «Izan bedi argia».

Eta izan zen argia. ⁴ Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen ilunbeetatik: ⁵ argiari «egun» eman zion izen eta ilunpeei «gau». Honela, lehen eguna burutu zen.

Is 65,17-19

- 17 כִּי־הִנְנִי בּוֹרֵא שָׁמַיִם חֲדָשִׁים וָאָרֶץ חֲדָשָׁה וְלֹא תִזְכְּרָנָה
 הָרָאשִׁוֹת וְלֹא תִעֲלֶינָה עַל־לֵב:
 18 כִּי־אִם־שִׁישׁוֹ וְגִילּוֹ עֲדִי־עַד אֲשֶׁר אֲנִי בּוֹרֵא כִּי־הִנְנִי בּוֹרֵא
 אֶת־יְרוּשָׁלַם וְגִילָה וְעִמָּה מְשׁוּשׁ:

¹⁷ Jaunak dio: / «Hara, zeru-lur berriak / sortuko ditut. / Lehengoaz ez da inor oroituko, / ez du inork gogora ekarriko.

¹⁸ Alderantziz, / amaigabeko poza eta alaitasuna / izango dituzue / nik sortuko dudanagatik, / poz-hiri bihurtuko baitut Jerusalem, / alaitasun-herri bertako jendea.

Jn 1,1-5

1 Έν ἀρχῇ ἦν ὁ λόγος, καὶ ὁ λόγος ἦν πρὸς τὸν θεόν, καὶ θεὸς ἦν ὁ λόγος. 2 οὗτος ἦν ἐν ἀρχῇ πρὸς τὸν θεόν. 3 πάντα δι' αὐτοῦ ἐγένετο, καὶ χωρὶς αὐτοῦ ἐγένετο οὐδὲ ἓν. ὃ γέγονεν 4 ἐν αὐτῷ ὃ ζωὴ ἦν, καὶ ἡ ζωὴ ἦν τὸ φῶς τῶν ἀνθρώπων· 5 καὶ τὸ φῶς ἐν τῇ σκοτίᾳ φαίνει, καὶ ἡ σκοτία αὐτὸ οὐ κατέλαβεν.

¹ Hasieran bazen Hitza. / Hitza Jainkoarekin zegoen / eta Hitza Jainko zen.

² Hasieran / Jainkoarekin zegoen Hitza.

³ Gauza guztiak / beronen bidez egin ziren, / eta egindakotik ezer / ez da berau gabe egin.

⁴ Hitzarengan zegoen bizia, / eta bizia gizakien argia zen;

⁵ argi horrek ilunpetan egiten du argi, / baina ilunpeek ez zuten onartu.

Ap 21, 1-4

1 Καὶ εἶδον οὐρανὸν καινὸν καὶ γῆν καινὴν. ὁ γὰρ πρῶτος οὐρανὸς καὶ ἡ πρώτη γῆ ἀπῆλθαν αἱ ἡ θάλασσα οὐκ ἔστιν ἔτι. 2 καὶ τὴν πόλιν τὴν ἁγίαν Ἱερουσαλὴμ καινὴν εἶδον καταβαίνουσαν ἐκ τοῦ οὐρανοῦ ἀπὸ τοῦ θεοῦ ἡτοιμασμένην ὡς νύμφην κεκοσμημένην τῷ ἀνδρὶ αὐτῆς. 3 καὶ ἤκοῦσα φωνῆς μεγάλης ἐκ τοῦ θρόνου λεγούσης· Ἴδου ἡ σκηνὴ τοῦ θεοῦ μετὰ τῶν ἀνθρώπων, καὶ σκηνώσει μετ' αὐτῶν, καὶ αὐτοὶ λαοὶ αὐτοῦ ἔσονται, καὶ αὐτὸς ὁ θεὸς μετ' αὐτῶν ἔσται [αὐτῶν θεός], 4 καὶ ἐξαλείψει πᾶν δάκρυον ἐκ τῶν ὀφθαλμῶν αὐτῶν, καὶ ὁ θάνατος οὐκ ἔσται ἔτι οὔτε πένθος οὔτε κραυγὴ οὔτε πόνος οὐκ ἔσται ἔτι, [ὅτι] τὰ πρῶτα ἀπῆλθαν.

¹ Zeru berria eta lur berria ikusi nituen, suntsituak baitziren lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta jadanik itsasorik ere ez zen. ² Hiri santua ikusi nuen, Jerusalem berria, zerutik, Jainkoarengandik, jaisten, emaztegaia bere senarrarentzat bezala apaindua. ³ Eta ahots handia entzun nuen tronutik esaten: «Hona Jainkoak gizon-emakumeen artean jarri duen bizilekua; haiekin biziko da; haiek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dute berekin. ⁴ Haien begietako malkoak xukatuko ditu, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua betiko desagertua baita».

Has 12,1-3

1 וַיֹּאמֶר יְהוָה אֶל־אַבְרָם לֵךְ־לָהּ, מֵאַרְצָהּ, וּמִמִּן־לְדָתָהּ, וּמִבְּרִית
אַבְרָם אֶל־הָאֶרֶץ אֲשֶׁר אֶרְאֶהָ:
2 וְאַעֲשֶׂה לָּךְ נִדּוּל וְאֶבְרַכְךָ וְאַנְדֹּלָהּ שְׁמָךְ וְיְהִי בְרַכָּהּ:
3 וְאֶבְרַכְךָ מִבְּרַכְיָהּ וּמִקְלָלָהּ אֲאָר וְנִבְרַכְוּ בָךְ כָּל־מְשֻׁפָּחֹת הָאֲדָמָה:

¹ Jaunak esan zion Abrami:

«Utzi zeure lurra, zeure ahaideak / eta zeure aitaren etxea / eta zoaz nik erakutsiko dizudan / lurraldera.

² Nazio handi eginen zaitut. / Ospetsu bihurtuko dut zure izena. / Bedeinkatuko zaitut, / eta bedeinkazio-iturri izango zara.

³ Bedeinkatzen zaituena / bedeinkatu egingo dut; / madarikatzen zaituena, berri, / madarikatu. / Zure bitartez bedeinkatuko ditut / lurreko herri guztiak».

Ir 3,1-7a.8a.9-10

- 1 ומֹשֶׁה הָיָה רֹעֶה אֶת־צֹאן יִתְרוֹ חֹתָנוּ כִּתְּנוּ מִדִּין וַיָּבֹהֶן
אֶת־הַצֹּאן אַתֶּר הַמִּדְבָּר וַיָּבֹא אֶל־הָר הָאֱלֹהִים חֶרְבָּה:
2 וַיֵּרָא מִלְּאֹךְ יְהוָה אֵלָיו בְּלִבְת־אֵשׁ מִתּוֹךְ הַסִּנֵּה וַיֵּרָא וַהֲנֶה
הַסִּנֵּה בַעַר בָּאֵשׁ וַהֲסִנֵּה אֵינֶנּוּ אֶכֶל:
3 וַיֹּאמֶר מֹשֶׁה אֶסְרֶה־נָּא וְאֶרְאֶה אֶת־הַמִּרְאָה הַגָּדֹל הַזֶּה מִדּוֹעַ לֹא־יָבֹעַר הַסִּנֵּה
4 וַיֵּרָא יְהוָה כִּי סָר לְרְאוֹת וַיִּקְרָא אֵלָיו אֱלֹהִים מִתּוֹךְ הַסִּנֵּה
וַיֹּאמֶר מֹשֶׁה מֹשֶׁה וַיֹּאמֶר הֲנִי:
5 וַיֹּאמֶר אֶל־תִּקְרַב הָלָם שֶׁל־נְעֻלֶיךָ מֵעַל רִגְלֶיךָ כִּי הַמָּקוֹם
אֲשֶׁר אַתָּה עוֹמֵד עָלָיו אֲדַמֶּת־קֹדֶשׁ הוּא:
6 וַיֹּאמֶר אֲנֹכִי אֱלֹתִי אֲבִיךָ אֱלֹדִי אֲבֹרְהֶם אֱלֹתִי יִצְחָק וְאַלְתֵּי
יַעֲקֹב וַיִּסְתַּר מֹשֶׁה פָּנָיו כִּי יָרָא מֵהִבִּישׁ אֶל־הָאֱלֹהִים:
7 וַיֹּאמֶר יְהוָה רְאֵה רְאֵיתִי אֶת־עֲנִי עַמִּי אֲשֶׁר בְּמִצְרַיִם
וְאֶת־צַעֲקָתָם שָׁנַעְתִּי מִפְּנֵי נִגְשָׁיו (...):
8 וְאֶדְר לְהַצִּילוֹ מִיַּד מִצְרַיִם וּלְהַעֲלֹתוֹ מִן־הָאָרֶץ הַהִוא
אֶל־אֶרֶץ טוֹבָה וְרַחֲבָה אֶל־אֶרֶץ זֵבֶת חֶלֶב וְדָבָשׁ (...):
9 וְעַתָּה הִנֵּה צַעֲקַת בְּנֵי־יִשְׂרָאֵל בָּאָה אֵלַי וְגַם־רְאִיתִי
אֶת־הַלֶּחֶץ אֲשֶׁר מִצְרַיִם לֹחֲצִים אֹתָם:
10 וְעַתָּה לָכֵה וְאַשְׁלַחְךָ אֶל־פְּרָעֹה וְהוֹצֵא אֶת־עַמִּי בְּנֵי־יִשְׂרָאֵל מִמִּצְרַיִם:

¹ Moisesek Madiango apaiz Jetro bere aitagarrebaren artalde zaintzen zuen. Behin batean, basamortuan barrena eraman zuen artalde eta Jainkoaren mendiraino, Horeberaino, iritsi zen. ² Han, Jaunaren aingerua agertu zitzaion sasi artean pizturiko sugarretan. Moises begira jarri zen: sasia, sutan egon arren, ez zen erretzen. ³ Moisesek bere buruari ziotson: «Hurbil nadin gauza harrigarri hori ikustera: nola liteke sasia ez erretzea?»

⁴ Begiratzera zetorrela ikustean, Jaunak dei egin zion sasiartetik:

—Moises! Moises!

Hark erantzun:

—Hemen nauzu!

⁵ —Ez hurbildu —esan zion Jaunak—. Erantzi oinetakoak, zauden lekua lur santua baita. ⁶ Ni zure arbaso Abraham, Isaak eta Jakoben Jainkoa naiz. Moisesek aurpegia estali zuen, Jainkoari begiratzeko beldur baitzen.

⁷ Jaunak esan zion, gainera:

—Ongi ikusia dut zure herriaren atsekabea Egipton eta entzuna haien oihua zapaltzaileen zigorpean (...) ⁸ Egiptoarren eskuetatik libratzera etorri naiz eta lurralde honetatik, esnea eta ezia darizkion lurralde zabal eta jori batera igoaraztera (...) ⁹ Hara, nireganaino heldu da israeldarren deiadarra, eta ikusi dut zeinen gogor erabiltzen dituzten egiptoarrek. ¹⁰ Zoaz, bada; faraoiagana bidaltzen zaitut, ene herria, israeldarrak, Egiptotik atera ditzazun.

Ir 33,18-23

18 וַיֹּאמֶר הָרֹאֲנִי נָא אֶת־כְּבֹדְךָ;
 19 וַיֹּאמֶר אֲנִי אֶעֱבִיר כָּל־טוֹבִי עַל־פְּנֶיךָ וְקִרְאתִי בְשֵׁם יְהוָה לְפָנֶיךָ וְחַנּוּתִי
 אֶת־אֲשֶׁר אֲחִין וְרַחֲמֵי אֶת־אֲשֶׁר אֲרַחֵם:
 20 וַיֹּאמֶר לֹא תוּכַל לִרְאֹת אֶת־פָּנַי כִּי לֹא־יִרְאֵנִי הָאָדָם וְחִי:
 21 וַיֹּאמֶר יְהוָה הִנֵּה מְקוֹם אֲתִי וְנִצַּבְתָּ עַל־הַצּוּר:
 22 וְהָיָה בְּעֵבֶר כְּבֹדִי וְשִׁמְתֶיךָ בְּנוֹקְרַת הַצּוּר וְשַׁכַּתִּי כַּפִּי עָלֶיךָ עַד־עֲבָרִי:
 23 וְהִסְרֹתִי אֶת־כְּפִי וְרָאִיתָ אֶת־אַחֲרִי וּפָנַי לֹא יֵרָאוּ:

¹⁸ Moisesek erregutu zion Jaunari:

—Erakustazu, otoi, zeure aintza.

¹⁹ Jaunak erantzun zion:

—Neure on gutzia igaroaraziko dut zure aurretik eta neure izena hots egingo: «Jauna». Nik mesede egin nahi diodanari egiten diot mesede, eta gupida izan nahi diodanari izaten gupida. ²⁰ Baina nire aurpegia ez zenezake ikus, ez bainazake gizakiak ikus eta bizirik iraun.

²¹ Ondoren, Jaunak esan zion:

—Hona hemen leku bat nire ondoan; zaude zutik harkaitz gainean. ²² Nire aintza igarotzean, harkaitz-zuloan sartuko zaitut eta nire eskuz estaliko, ni igaro arte. ²³ Gero, eskua kenduko dut, eta bizkarraldean ikusi ahal izango didazu; baina ene aurpegia ez daiteke ikus.

2 Sm 12,1-7

1 וַיִּשְׁלַח יְהוָה אֶת־נָתָן אֶל־דָּוִד וַיֵּבֶא אֵלָיו וַיֹּאמֶר לוֹ שְׁנֵי אַנְשִׁים הָיוּ בְּעִיר
 אַחַת אֶחָד עֹשֶׂיר וְאֶחָד רָאשׁ:
 2 לְעֹשֶׂיר הָיָה צֹאן וּבָקָר הַרְבֵּה מְאֹד:
 3 וְלָרֶשׁ אֵין־כֹּל כִּי אִם־כֹּבֶשֶׂה אַחַת קִטְנָה אֲשֶׁר קָנָה וַיִּתְּיָהּ וַתִּגְדֵּל עִמּוֹ
 וְעַם־בָּנָיו יָחִידוּ מִפֶּתוֹ תֹאכֵל וּמִכֶּסֶן תִּשְׁתֶּה וּבְחִיקוֹ תִשְׁכַּב וַתְּהִי־לוֹ כֶּבֶת:
 4 וַיֵּבֶא הַלֵּךְ לָאִישׁ הָעֹשֶׂיר וַיַּחְמֹל לִקְחַת מִצֹּאֲנוֹ וּמִבָּקָרוֹ לַעֲשׂוֹת לֶאֱרוֹן
 הַבָּא־לוֹ וַיִּקַּח אֶת־כֹּבֶשֶׂת הָאִישׁ הָרֹאשׁ וַיַּעֲשֶׂה לָאִישׁ הַבָּא אֵלָיו:
 5 וַיַּחֲרֹאֲף דָּוִד בְּאִישׁ מְאֹד וַיֹּאמֶר אֶל־נָתָן חִי־יְהוָה כִּי בֶן־מָוֶת הָאִישׁ הָעֹשֶׂה זֹאת:
 6 וְאֶת־הַכֹּבֶשֶׂה יִשְׁלַם אַרְבַּעַתַּיִם עֶקֶב אֲשֶׁר עָשָׂה אֶת־הַדְּבָר הַזֶּה וְעַל אֲשֶׁר לֹא־חָמַל:
 7 וַיֹּאמֶר נָתָן אֶל־דָּוִד אַתָּה הָאִישׁ:

¹ Jaunak Natan profeta bidali zion Davidi. Natanek esan zion:

—Hara, baziren hiri batean bi gizon, bata aberatsa, eta bestea behartsua.

² Aberatsak ardi eta behi ugari zuen. ³ Behartsuak, aldiz, erositako bildots koskor bat baizik ez zuen. Berak elikatu zuen eta bere etxean hazi, seme-alabekin batera; bere ogitik eman ohi zion jaten eta bere edalontzitik edaten, eta bere magalean lotaratzen zuen. Alaba bezalaxe zuen.

⁴ Behin batez, bisitari bat etorri zitzaion gizon aberatsari; honek ez zuen bere ardirik, ez behirik hartu nahi izan arrotz hari jaten emateko, baizik eta behartsuari kendu zion bildotsa; horrela prestatu zuen jakia bere bisitariarentzat.

⁵ Biziki haserretu zen Dabid halako gizonaren aurka, eta esan zion Natani: —Ala Jauna! Hori egin duenak bai merezi duela heriotza! ⁶ Hori egingo zuen, bada, inolako gupidarik gabe? Lau halako itzuli beharko du, bildotsaren ordain.

⁷ Natanek, orduan, Dabidi:

—Zeu zara gizon hori!

1 Erg 19,8-13

8 וַיָּקָם וַיֵּאָכֵל וַיִּשְׁתֶּה וַיֵּלֶךְ בְּכַחוֹ הָאֲכִילָה הָהִיא אֲרֻבָּעִים יוֹם וְאַרְבָּעִים
לַיְלָה עַד הָרֶה הָאֱלֹהִים חָרָב:
9 וַיֵּבֵא שָׁם אֶל-הַמַּעֲרָה וַיֵּלֶן שָׁם וַהֲנֶה דְּבַר-יְהוָה אֵלָיו וַיֹּאמֶר לוֹ מִה-לָּךְ,
כֹּה אֵלָיו:
10 וַיֹּאמֶר קָנָא קָנָאתִי לַיהוָה אֱלֹהֵי צְבָאוֹת כִּי-עָזְבוּ בְּרִיתִךְ בְּנֵי יִשְׂרָאֵל
אֶת-מִזְבְּחֶיךָ הָרְסוּ וְאֶת-נְבִיאֶיךָ הָרְגוּ בְּחָרֵב וְאֶתְּרָם אֲנִי לְבָדִי וַיִּבְקֶשׁוּ
אֶת-נַפְשִׁי לְקַחְתָּהּ:
11 וַיֹּאמֶר צֹא וְעַמְדָתָ בְּהָרַ לִפְנֵי יְהוָה וַהֲנֶה יְהוָה עֹבֵר וְרוּחַ גְּדוּלָּה וְחֹזֶק
מִפָּרֶק הָרִים וּמִשִּׁבְרֵי סָלְעִים לִפְנֵי יְהוָה לֹא כְרוּחַ יְהוָה וְאַחֵר הָרוּחַ רֵעַשׁ לֹא
כְרֵעַשׁ יְהוָה:
12 וְאַחֵר הָרֵעַשׁ אֵשׁ לֹא כָאֵשׁ יְהוָה וְאַחֵר הָאֵשׁ קוֹל דִּמְמָה דִּקָּה:
13 וַיְהִי כִשְׁמַע אֱלֹהֵיו וַיִּגְלַט פָּנָיו בְּאֹדְרֹתָיו וַיֵּצֵא וַיַּעֲמֵד פֶּתַח הַמַּעֲרָה וַהֲנֶה
אֵלָיו קוֹל מִה-לָּךְ כֹּה אֵלָיו:

⁸ Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta janari haren indarrez berrogei egun eta berrogei gau ibili zen, Horeb-eraino, Jaunaren mendiraino. ⁹ Hara heltzean, leize-zulo batera sartu eta bertan eman zuen gaua.

Jaunak honela egin zion hitz:

—Zertan zaude hemen, Elias?

¹⁰ Eliasek erantzun:

—Jauna, Jainko ahalguztiduna, zureganako maiteminak erretzen nau, israeldarrek zurekiko ituna hautsi dutelako, zure aldareak hondatu eta zure profetak ezpataz hil dituztelako. Ni bakarra gelditu naiz, eta nire bila ere badabiltza bizia kentzeko.

¹¹ Jaunak, orduan:

—Irtén eta egon zutik mendian, Jaunaren aitzinean; Jauna igaroko da.

Jaunaren aurretik haize zakar indartsuak jo zuen; mendiak urratu eta haitzak zartatzen zituen. Jauna, ordea, ez zen haizean. Haizearen ondoren lurrikara

izan zen; Jauna, ordea, ez zen lurrikaran. ¹² Lurrikararen ondoren, sua; Jauna, ordea, ez zen suan ere. Suaren ondoren, zuzmur apal baten hotsa. ¹³ Entzun zuenean, Eliasek aurpegia estali zuen bere soingainekoaz; gero, irten eta zutik gelditu zen leizearen ahoan, eta ahots batek galdegin zion:

—Zertan zaude hemen, Elias?

Is 1,2-3

2 שָׁמְעוּ שָׁמַיִם וְהָאָרֶץ כִּי יִהְיֶה דְבַר בָּנִים גִּדְּלָתִי וְרוֹמְמָתִי וְהֵם פָּשְׁעוּ בִּי:
3 יָדַע שׁוֹר קִנְהוֹ וְחִמּוֹר אָבוֹס בְּעָלָיו יִשְׂרָאֵל לֹא יָדַע עָמִי לֹא הִתְבּוֹנֵן:

² Entzun, zeru-lurrok! / Honela mintzo da Jauna: / «Haurrak sortu ditut eta hazi, / baina aurka altxatu zaizkit.

³ Ezagutzen du idiak nagusia, / baita astoak ere / ugazabareneko aska; / Israelek, oster, ez du ezagutzen, / nire herriak ez du aditzen».

Is 11,6-9

6 וְגַר זֶאֵב עִם-כֶּבֶשׂ וְנֹמֶר עִם-דָּגִי יִרְבֶּץ וְעֹגֵל וְכַפִּיר וּמְרִיא יִחְדּוּ וְנָעַר קֶטֶן נְהַג בָּם:
7 וּפְרָה וְדֹב תִרְעִינָה יִחְדּוּ יִרְבְּצוּ יִלְדֵיהֶן וְאַרְיֵה בִבְקָר וְאַכְל־תֶּבֶן:
8 וְשִׁעֲשֹׁעַ יִנּוֹק עַל-תֵּר פָּתַח וְעַל מְאוּרֹת צִפְעוֹנִי וְגִמּוֹל יִדּוּ הָרֶחַ:
9 לֹא-יִרְעוּ וְלֹא-יִשְׁחִיתוּ בְּכָל-תֵּר קִרְשֵׁי כִי-מִלֵּאָה הָאָרֶץ דָּעָה אֶת-יְהוָה כַּמִּים לַיָּם מְכַנִּים יָם:

⁶ Orduan, otsoa eta bildotsa / elkarrekin biziko dira, / lehoinabarra eta antxumea / elkarren ondoan etzango; / zekorra eta lehoikumea / batera haziko dira, / eta haurtxo batek zainduko ditu.

⁷ Behia eta hartz emea / elkarrekin larratuko dira / eta haien umeak batera etzango. / Lehoiak lastoa jango du, / idiaren antzera.

⁸ Bularreko haurra / suge-zuloetan jolastuko da, / sugedorri-habian sartuko du eskua.

⁹ Nire mendi santu osoan / ez du inork kalterik, / ez hondamendirik egingo, / Jaunaren ezagupenak beteko baitu / lurralde osoa, urak itsasoa bezala.

Is 66,7-14

7 בְּטָרֶם תַּחֲלִי יִלְדָה בְּטָרֶם יִבּוֹא תִּבֵּל לָהּ וְהִמְלִיטָה זָכָר:
8 מִי־שָׁמַע כְּזֹאת מִי רָאָה כְּאַלֶּה הִיחַל אֶרֶץ בָּנִים אַחֲרֵי אִם-יִוָּלֵד גִּי פָעַם
אַתָּה כִּי-תִלְדִּי גַם-יִלְדָה צִיּוֹן אֶת-בְּנֵיהָ:
9 הָאֲנִי אֲשַׁבֵּר וְלֹא אוֹלִיד יֹאמַר יְהוָה אִם-אֲנִי הַמּוֹלִיד וְעַצְרָתִי אֹמַר אֱלֹהֶיךָ:

10 שִׁמְחוּ אֶת־יְרוּשָׁלַם וְגִילוּ כִּי כָּל־אֲהֻבֶיהָ שִׂישׁוּ אִתָּהּ מְשׁוֹשׁ
כָּל־הַמְּתַאֲבָלִים עָלֶיהָ:

11 לְמַעַן תִּינָקוּ וּשְׂבַעְתֶּם מִשֹּׁד הַתְּחִמָּה לְמַעַן תִּמְצְוּ וְהִתְעַנֵּנְתֶם נָא כְּבוֹדָהּ:

12 כִּי־כֵהוּ אָמַר יְהוָה הִנְנִי נֹטֶה אֶלֶיהָ כְּנֹהֵר שָׁלוֹם וְכִנְחָל שׁוֹמֵר כְּבוֹד גּוֹיִם
וְיִנָּקְתֶם עַל־צֶדֶד וְנִשְׂאוּ וְעַל־בְּרָכִים תִּשְׁעֲשְׁעוּ:

13 כֹּאִישׁ אֲשֶׁר אָמַן תְּחִמָּנוּ כֵּן אֲנֹכִי אֲנַחֲמְכֶם וּבִירוּשָׁלַם תִּתְחַמּוּ:

⁷ Erdiminak baino lehen / izan du Sionek haurra, / oinazeak baino lehen / ekarri du umea.

⁸ Nork entzun du inoiz horrelakorik? / Nork ikusi du antzekorik? / Egun batean jaiotzen ote da / herrialde bat osorik? / Bat-batean sortzen ote / nazio bat osorik? / Sionek, ordea, / erdiminak hasi bezain laster / izan ditu seme-alabak.

⁹ Hau dio Jaunak, zure Jainkoak: / «Nik, haurrari irtenbidea / ematen diodan honek, / ez ote nion, bada, jaiotzen utziko? / Haurrak jaioarazten ditudan honek, / irtetea eragotziko ote nion?»

¹⁰ Poz zaitezte Jerusalemekin, / alaitu berarengatik, / maite duzuen guztiok! / Izan orain berarekin zoriontsu, / harengatik dolu egin zenutenok!

¹¹ Edan asetzeraino / haren bular gozotik! / Xurgatu atseginez / haren ugatz oparotik!

¹² Zeren hau baitio Jaunak: / «Ibaika ekarriko diot / Jerusalemi zoriona, / erreka betean nazioen ondasunak. / Amak haurra bezala / zainduko zaituztet: / bularra eman eta altzoan hartuko / eta magalean gozatuko.

¹³ Amak haurra / kontsolatzen duen bezala, / halaxe kontsolatuko zaituztet; / bai, Jerusalem / kontsolatuko zaituztet».

Jr 17,5-10

5 כֹּה אָמַר יְהוָה אֱלֹהֵי אֶרֶז הַנֶּבֶר אֲשֶׁר יִבְטַח בְּאֲדָם וּשְׁם בָשָׂר זָרְעוֹ וּמִן־יְהוָה יִסּוּר לִבּוֹ:

6 וְהָיָה כְּעֶרְעֵר בְּעֶרְבָה וְלֹא יִרְאֶה כִּי־יָבֹא טוֹב וְשָׁכַן חֲרָרִים בְּמִדְבָּר אֶרֶץ מְלָחָה וְלֹא תִשָּׁב:

7 בְּנֶי־הַנֶּבֶר אֲשֶׁר יִבְטַח בִּיהוָה וְהָיָה יְהוָה מִבְּטָחוֹ:

8 וְהָיָה כְּעֵץ שְׁתּוּל עַל־מַיִם וְעַל־יֹבֵל יִשְׁלַח שָׁרְשָׁיו וְלֹא יִרְאֶה כִּי־יָבֹא חֹם וְהָיָה עָלָיו רֶעָנָן וּבִשְׁנַת בִּצְרָתָהּ לֹא יִדָּאָג וְלֹא יִמָּשׁ מַעֲשֵׂוֹת פָּרִי:

9 עֵקֶב הָלַב מָכַל וְאָנֹשׁ הוּא מִי יִדְעֶנּוּ:

10 אֲנִי יְהוָה חָקֵר לֵב בְּתֵן כְּלָיוֹת וְלִתְתָּ לְאִישׁ כִּדְרֻכּוֹ כִּפְרִי מַעֲלָלָיו:

⁵ Honela dio Jaunak: / «Madarikatua / konfiantza gizakiagan duena, / giza indar hutsean oinarritzen dena / eta niregandik urruntzen!

⁶ Basamortuko zuhaixkaren / antzeko da: / ez du sasoi onik izango, / lur idorretan landatua, / biziezineko lur gazitan.

⁷ «Bedeinkatua / konfiantza niregan duena, / euskarri ni nauena!

⁸ Ur ondoan landaturiko / zuhaitzaren antzeko da: / ur bizigarrietara / zabalduko ditu sustraiak, / sargoriari ez dio beldurrik: / haren hostoak beti berde; / lehorte-urtean ere hura lasai, / ez dio uzten fruitua emateari.

⁹ «Ez da ezer giza bihotza baino / maltzurragorik, sendaezinagorik. / Nork antzeman berari?

¹⁰ Neuk, Jaunak, / ikertzen eta aztertzen ditut / gizakiaren buru-bihotzak, / nori bere jokaeraren ordaina, / bere egiteen merezia emateko.

Am 3-4.6-8

3 הִילְכוּ שְׁנַיִם יַחְדָּו בְּלִתִּי אִם־נוֹעְרוּ:

4 הַיֹּשָׁאֵן אֲרִיָּה בְּעֵר וְטָרֵף אֵין לוֹ הַיֹּתֵן כְּפִיר קוּלוֹ מִמַּעַנְתּוֹ בְּלִתִּי אִם־לָכָד:

6 אִם־יִתְקַע שׁוֹפָר בְּעֵיר וְעַם לֹא יִחַדְרוּ אִם־תִּהְיֶה רָעָה בְּעֵיר וַיְהִיָּה לָא עֲשָׂה:

7 כִּי לֹא יַעֲשֶׂה אָדָנִי יְהוָה דְּבָר כִּי אִם־גִּלָּה סוּדוֹ אֶל־עַבְדָּיו הַנְּבִיאִים:

8 אֲרִיָּה שָׂאֵן מִי לֹא יִירָא אָדָנִי יְהוָה דְּבָר מִי לֹא יִבָּא:

³ Bi gizon elkarrekin / joango ote dira, / lehenik ados jarri ez badira?

⁴ Lehoiak oihanean / orrorik egiten ote du, / harrapakinik ez badu? / Lehoikumeak gordelekutik / marruma egiten ote du, / ezer harrapatu ez badu?

⁶ Jo al daiteke hirian adarra, / jendea asaldatu gabe? / Gerta al daiteke hirian zorigaitza, / Jaunak eragin gabe?

⁷ Ez, Jainko Jaunak ez du ezer egiten, / bere zerbitzari profetei / bere asmoa azaldu gabe.

⁸ Lehoiak orroa dagi, / nor ez beldurtu? / Jaunak hitz dagi, / nork ez haren mezua zabaldu?

Sal 65,10-14

10 פָּקַדְתָּ הָאָרֶץ וַתִּשְׁקָהָ רַבָּת תַּעֲשֶׂנָּה פֶּלֶא אֱלֹהִים מְלֵא מִים תִּכְיֶין דְּגַנָּם כִּי־כֵן תִּכְיֶנָּה:

11 חֲלָמִיָּה רוּחַ נָתַת גְּדוּרֶיהָ בְּרִיכִים תִּמְנְנָה צִמְחָה חֲבָרָה:

12 עֲטַרְתָּ שָׁנַת טוֹבָתָהּ וַיִּמְעַלֶּיהָ יִרְעַפּוּן הָשֵׁן:

13 יִרְעַפּוּ נְאֻת מִדְּבַר וְגִיל גְּבָעוֹת תַּחֲנֶנָּה:

14 לְבָשׁוּ כְרִים הַצֹּאן וַעֲמָקִים יַעֲטֹפוּ־בָר יִתְרַעְעוּ אַף־יִשְׁירוּ:

¹⁰ Zuk zaintzen duzu lurra, urez ase eta oparo aberasten; / gainezka doa urez zeruko ubidea, / zuk ematen diozu gizakiari garia, zuk prestatzen lurra:

¹¹ ildoak ureztatu, zokorrak berdindu, / euri-zaparradaz harrotu, ernamuinak bedeinkatu.

¹² Urtea ondasunez mukurutzen duzu, / zure lautadak joritasunez janzten.

¹³ Heze eta jori daude landa zabalak, / pozez apaindurik mendi-muinoak.

¹⁴ Zelaiak artaldeztan jantzi dira, ibarrak gariz estali. / Denek irrintzi eta kantu!

Sal 131

1 יְהוָה לֹא-נִבְהָ לִבִּי וְלֹא-דָמָו עֵינַי וְלֹא-הִלְכֵתִי

בְּגִדְלֹת וּבִנְפִלְאוֹת מִמֶּנִּי:

2 אִם-לֹא שִׁוִּיתִי וְדוּמְמָתִי נִפְשִׁי כְּנֹמֶל עָלַי אֲמֹ כְּנֹמֶל עָלַי נִפְשִׁי:

3 יִתֵּל יִשָּׁן אֵל אֶל-יְהוָה מִעַתָּה וְעַד-עוֹלָם:

¹ Jauna, nire bihotza ez da handi-min, / ez nire begiak gorazale; / ez nabil gauza handien atzetik, / ez neurriz gainekoen atzetik.

² Isil eta bare dut barne-gogoa; / haurtxoa amaren altzoan bezala, / haurtxoa bezala dut barnean gogoa.

³ Israel, izan Jaunarengan itxaropen / oraindanik eta betiko!

Jb 3,1-7.9-10

1 אַחֲרֵי-כֵן פָּתַח אִיּוֹב אֶת-פִּיהוּ וַיִּקְלַל אֶת-יוֹמוֹ:

2 וַיֵּעַן אִיּוֹב וַיֹּאמֶר:

3 יָאֵבֶד יוֹם אֲנִלְדָּ בּוֹ וְהַלִּילָה אֹמֶר תִּרְחַ נֶגֶד:

4 הַיּוֹם הַזֶּהוּא יֵהִי חֹשֶׁךְ אֶל-יִדְרָשׁוּהוּ אֱלֹהִים מִמַּעַל וְאֶל-תּוֹפֵעַ עָלָיו נִהְרָה:

5 וַיִּנְאָלְהוּ חֹשֶׁךְ וּצְלָמוֹת תִּשְׁכֹּן-עָלָיו עֲנָנָה יִבְעָתְהוּ כְּמַרְיֵי יוֹם:

6 הַלִּילָה הַזֶּהוּא יִקְתָּהוּ אָפֶל אֶל-יַחַד בִּימֵי שָׁנָה בְּמִסְפָּר יָרְחִים אֶל-יָבֵא:

7 הִנֵּה הַלִּילָה הַזֶּהוּא יֵהִי גִלְמוֹד אֶל-תִּבְאָ רִנָּה בּוֹ:

9 יִחַשְׁכוּ כּוֹכָבֵי נִשְׁפָּן יָקוּ-לְאוֹר וְאֵין וְאֶל-יִרְאָה בְּעַפְעַפֵּי-שָׁחַר:

10 כִּי לֹא סֹגֵר דָּלְתִי בְּטָגִי וַיִּסְתֹּר עָמֶל מַעֲיָנִי:

11 לָמָּה לֹא מִרְחָם אֲמוֹת מִבֶּטֶן יִצְאָתִי וְאֶנְוָע:

¹ Azkenean, ahoa zabaldu eta jaio zeneko eguna madarikatu zuen Jobek.

² Honela hitz egin zuen:

³ «Madarikatua jaio nintzeneko eguna / eta «Ume bat sortu da» esan zuteneko gaua!

⁴ Bihur bedi egun hura iluntasun, / ez beza Jainkoak kontuan har, / ezta argiak ere haren gain distiratu!

⁵ Jabetu bitez hartaz ilunpea eta herio-itzala, / ezkuta bedi lainopean, / eta har beza bat-bateko iluntasun beldurgarriak!

⁶ Irents beza gau hura iluntasunak, / ez beza inork urteko egunen artean sar, / ezta zenbatu ere hilekoen artean!

⁷ Bai, izan bedi antzu gau hura, / ez beza entzun poz-oihurik!

⁹ Goibel bitez haren egunsentiko izarrak; / argiaren zain egon, eta ez dezala batere izan! / Ez bitza ikus egunsentiaren begiak irekitzen!

¹⁰ Madarikatua, ez baitzizkidan itxi amaren sabeleko atea, / hainbeste atsekabe ikustetik libratzeko!

Es 30,18-19

18 שְׁלֹשָׁה הָמָּה נִבְלָאוּ מִמֶּנּוּ וְאַרְבַּעָּה לֹא יָדַעְתִּים:
19 דֶּרֶךְ הַנָּשָׂר בְּשָׁמַיִם דֶּרֶךְ נָחֹשׁ עָלֵי צִוֵּר דֶּרֶךְ-אֲנִיָּה בְּלִבִּים וְדֶרֶךְ
נִבְרָ בְּעֵלְמָה:

¹⁸ Badira hiru gauza gainditzen nautenak, / baita laugarren bat ere ulertzen ez dudana:

¹⁹ arranoaren bidea ortzian, sugearen bidea haitzean, / ontziaren bidea itsaso zabalean / eta gizonaren bidea emakumearen baitan.

Koh 3,1-8

1 לְכֹל זְמַן וְעַתָּה לְכָל-חֶפֶץ תַּחַת הַשָּׁמַיִם:
2 עַתָּה לְלִדְתָּ וְעַתָּה לְמוֹתָ עַתָּה לְטַעַתָּ וְעַתָּה לְעִקּוֹר נְטוּעַ:
3 עַתָּה לְהַרְוֹג וְעַתָּה לְרַפּוֹא עַתָּה לְפָרוֹץ וְעַתָּה לִבְנוֹת:
4 עַתָּה לְבָכּוֹת וְעַתָּה לְשִׂחֹק עַתָּה סִפּוֹר וְעַתָּה רִקּוֹד:
5 עַתָּה לְהַשְׁלִיךְ אֲבָנִים וְעַתָּה כְּנוֹס אֲבָנִים עַתָּה לְחַבּוֹק וְעַתָּה לְרַחֵק מִחֶבֶק:
6 עַתָּה לְבַקֵּשׁ וְעַתָּה לְאַבֵּד עַתָּה לְשִׁמּוֹר וְעַתָּה לְהַשְׁלִיךְ:
7 עַתָּה לְקַדּוֹשׁ וְעַתָּה לְתַפּוֹר עַתָּה לְחִשּׁוֹת וְעַתָּה לְדַבֵּר:
8 עַתָּה לְאַהֲבָה וְעַתָּה לְשֹׂא עַתָּה מִלְחָמָה וְעַתָּה שָׁלוֹם:

¹ Denak du bere sasoia, / gauza bakoitzak bere garaia du / eguzkipean:

² jaiotzeko garaia / eta hiltzeko garaia, / landatzeko garaia / eta landarea ateratzeko garaia,

³ hilarazteko garaia / eta sendatzeko garaia, / hondatzeko garaia / eta eraikitzeko garaia,

⁴ negar egiteko garaia / eta barre egiteko garaia, / aiene egiteko garaia / eta alai egoteko garaia,

⁵ harriak jaurtitzeko garaia / eta harriak biltzeko garaia, / besarkatzeko garaia / eta banantzeko garaia,

⁶ bilatzeko garaia / eta galtzeko garaia, / gordetzeko garaia / eta botatzeko garaia,

⁷ urratzeko garaia / eta josteko garaia, / isiltzeko garaia / eta mintzatzeko garaia,

⁸ maitatzeko garaia / eta gorrotatzeko garaia, / gudurako garaia / eta bakerako garaia.

Mt 5,3-12

3 Μακάριοι οἱ πτωχοὶ τῷ πνεύματι,
2 ὅτι αὐτῶν ἐστὶν ἡ βασιλεία τῶν οὐρανῶν.

4 μακάριοι οἱ πενθοῦντες,
ὅτι αὐτοὶ παρακληθήσονται.

5 μακάριοι οἱ πραεῖς,
ὅτι αὐτοὶ κληρονομήσουσιν τὴν γῆν.

6 μακάριοι οἱ πεινῶντες καὶ διψῶντες τὴν δικαιοσύνην,
ὅτι αὐτοὶ χορτασθήσονται.

7 μακάριοι οἱ ἐλεήμονες,
ὅτι αὐτοὶ ἐλεηθήσονται.

8 μακάριοι οἱ καθαροὶ τῇ καρδίᾳ,
ὅτι αὐτοὶ τὸν θεὸν ὄψονται.

9 μακάριοι οἱ εἰρηνοποιοί,
ὅτι αὐτοὶ υἱοὶ θεοῦ κληθήσονται.

10 μακάριοι οἱ διωγόμενοι ἕνεκεν δικαιοσύνης,
ὅτι αὐτῶν ἐστὶν ἡ βασιλεία τῶν οὐρανῶν.

11 μακάριοί ἐστε ὅταν ὀνειδίσωσιν ὑμᾶς καὶ διώξωσιν καὶ εἵπωσιν πᾶν πονηρὸν καθ' ὑμῶν [ψευδόμενοι] ἕνεκεν ἐμοῦ.

12 χαίrete καὶ ἀγαλλιᾶσθε, ὅτι ὁ μισθὸς ὑμῶν πολὺς ἐν τοῖς οὐρανοῖς· οὕτως γὰρ ἐδίωξαν τοὺς προφήτας τοὺς πρὸ ὑμῶν.

³ «Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege.

⁴ «Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko.

⁵ «Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitzemandako lurraz.

⁶ «Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko.

⁷ «Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.

⁸ «Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.

⁹ «Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzen hartuko.

¹⁰ «Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege.

¹¹ «Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztenean, erasoka eta gezurrez gaizki-esaka erabiliko zaituztenean. ¹² Poztu zaitezte eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten.

Mt 11, 28-30

28 Δεῦτε πρὸς με πάντες οἱ κοπιῶντες καὶ πεφορτισμένοι, κἀγὼ ἀναπαύσω ὑμᾶς. 29 ἄρατε τὸν ζυγὸν μου ἐφ' ὑμᾶς καὶ μάθετε ἀπ' ἐμοῦ, ὅτι πραῖς εἰμι καὶ ταπεινὸς τῇ καρδίᾳ, καὶ εὐρήσετε ἀν᾿ ἀπαισιν ταῖς ψυχαῖς ὑμῶν· 30 ὁ γὰρ ζυγὸς μου χρηστὸς καὶ τὸ φορτίον μου ἑλαφρόν ἐστιν.

²⁸ «Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedeen. ²⁹ Hartazue nire uztarrria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; ³⁰ eramanerraza baita nire uztarrria eta arina nire zama».

Mk 10,13-16

13 Καὶ προσέφερον αὐτῷ παιδία ἵνα αὐτῶν ἅψηται· οἱ δὲ μαθηταὶ ἐπιτίμησαν αὐτοῖς. 14 ἰδὼν δὲ ὁ Ἰησοῦς ἠγανάκτησεν καὶ εἶπεν αὐτοῖς, Ὑποτάξατε τὰ παιδία ἔρχεσθαι πρὸς με, μὴ καλύψετε αὐτά, τῶν γὰρ ὁ τοιούτων ἐστὶν ἡ βασιλεία τοῦ θεοῦ. 15 ἂμὴν λέγω ὑμῖν, ὅς ἂν μὴ δέξηται τὴν βασιλείαν τοῦ θεοῦ ὡς παιδίον, οὐ μὴ εἰσέλθῃ εἰς αὐτήν. 16 καὶ ἐναγκαλισάμενος αὐτὰ κατεῦλόγει τιθεὶς τὰς χεῖρας ἐπ' αὐτά.

¹³ Beste batean, haurrak eraman zizkioten Jesusi, uki zitzan; ikasleek, berriz, haserre egiten zieten. ¹⁴ Hori ikustean, Jesus haserretu egin zen, eta esan: «Utzi haurrei niregana etortzen, ez galarazi, horrelakoek baitute Jainkoa errege. ¹⁵ Benetan diotsuet: Jainkoaren erreinua haur batek bezala onartzen ez duena ez da inola ere bertan sartuko».

¹⁶ Eta haurtxoak magalean hartu eta bedeinkatu egiten zituen, eskuak ezarriz.

Lk 4,16-21

16 Καὶ ἦλθεν εἰς Ναζαρά, οὗ ᾧ τεθραμμένος, καὶ εἰσῆλθεν κατὰ τὸ εἰωθὸς αὐτῷ ἐν τῇ ἡμέρᾳ τῶν σαββάτων εἰς τὴν συναγωγὴν καὶ ἀνέστη ἀναγνῶναι. 17 καὶ ἐπεδόθη αὐτῷ βιβλίον τοῦ προφήτου οὐ Ἡσαίου καὶ ἀναπτύξας τὸ βιβλίον εὗρεν τὸν τόπον οὗ ᾧν γεγραμμένον,

18 Πνεῦμα κυρίου ἐπ' ἐμέ

οὗ εἵνεκεν ἔχρισέν με

εὐαγγελίσασθαι πτωχοῖς,

ἀπέσταλκέν με, κηρύξαι αἰχμαλώτοις ἄφεσιν

καὶ τυφλοῖς ἀνάβλεψιν,

ἀποστεῖλαι τεθραυσμένους ἐν ἀφέσει,

19 κηρύξαι ἐνιαυτὸν κυρίου δεκτόν.

20 καὶ πτύξας τὸ βιβλίον ἀποδοὺς τῷ ὑπηρέτῃ ἐκάθισεν· καὶ πάντων οἱ ὀφθαλμοὶ ἐν τῇ συναγωγῇ ἦσαν ἀτενίζοντες αὐτῷ. 21 ἤρξατο δὲ λέγειν πρὸς αὐτοὺς ὅτι Σήμερον πεπλήρωται ἡ γραφή αὕτη ἐν τοῖς ὠσίν ὑμῶν.

(¹⁸. txatala zuzendua, EAB oker baitago puntu horretan)

¹⁶ Nazaretera joan zen (Jesus), bera hazi zen herrira, eta larunbatean sinagogan sartu zen, ohi zuenez, eta irakurgaia egitera zutitu. ¹⁷ Isaias profetaren liburua eman zioten eskura eta, irekitzean, pasarte hau aurkitu zuen:

¹⁸ «Jaunaren espiritua / nire gainean dago, / berak bainau gantzutu, behartsuei berriona adierazteko; berak nau bidali gatibuei askatasuna / eta itsuei ikusmena hots egitera / eta zapalduak askatzera,

¹⁹ Jaunak onginahia azalduko duen / urtea hots egitera».

²⁰ Liburua itxi, laguntzaileari eman eta eseri egin zen; denak sinagogan begira-begira zeuzkan. ²¹ Eta honela hasi zitzaien: «Gaur bete da profezia hau entzuten didazuenontzat».

Lk 6,27-31

²⁷ Ἀλλὰ ὑμῖν λέγω τοῖς ἀκούουσιν, ἀγαπᾶτε τοὺς ἐχθροὺς ὑμῶν, καλῶς ποιεῖτε τοῖς μισοῦσιν ὑμᾶς, ²⁸ εὐλογεῖτε τοὺς καταρωμένους ὑμᾶς, προσεύχεσθε περὶ τῶν ἐπηρεαζόντων ὑμᾶς. ²⁹ τὸ ὅτι τύπτοντί σε ἐπὶ τὴν σιαγόνα παρέχε καὶ τὴν ἄλλην, καὶ ἀπὸ τοῦ αἵροντός σου τὸ ἱμάτιον καὶ τὸν χιτῶνα μὴ καλύψεις. ³⁰ παντὶ αἰτοῦντί σε δίδου, καὶ ἀπὸ τοῦ αἵροντος τὰ σὰ μὴ ἀπαίτει.

³¹ καὶ καθὼς θέλετε ἵνα ποιῶσιν ὑμῖν οἱ ἄνθρωποι ποιεῖτε αὐτοῖς ὁμοίως.

²⁷ «Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, ²⁸ bedeinkatu madarikatzen zaituztenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde.

²⁹ «Masaila batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekora ere. ³⁰ Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez bihurraz. ³¹ Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei».

Lk 21,1-4

¹ Ἀναβλέψας δὲ εἶδεν τοὺς βάλλοντας εἰς τὸ γαζοφυλάκιον τὰ δῶρα αὐτῶν πλουσίους. ² εἶδεν δὲ ἑνὰ τινὰ χήραν πενιχρὰν βάλλουσαν ἐκεῖ λεπτὰ δύο, ³ καὶ εἶπεν, Ἀληθῶς λέγω ὑμῖν ὅτι ἡ χήρα αὕτη ἢ πτωχὴ πλεῖον πάντων ἔβαλεν· ⁴ πάντες γὰρ οὗτοι ἐκ τοῦ περισσεύοντος αὐτοῖς ἔβαλον εἰς τὰ δῶρα, αὕτη δὲ ἐκ τοῦ ὑπερήματος αὐτῆς πάντα τὸν βίον ὃν εἶχεν ἔβαλεν.

¹ Begira zegoela, aberats batzuk ikusi zituen Jesusek tenpluko dirutegian limosna botatzen. ² Ikusi zuen emakume alargun behartsu bat ere bi sos botatzen, ³ eta esan zuen: «Benetan diotsuet: Alargun behartsu honek beste guztiek baino gehiago bota du. ⁴ Izan ere, beste horiek guztiek sobera dutenetik egin dute limosna; honek, ordea, bere eskasian, bizitzeko zeukan guztia eman du».

Jn 7,37-39

³⁷ Ἐν δὲ τῇ ἑσχάτῃ ἡμέρᾳ τῇ μεγάλῃ τῆς ἑορτῆς εἰστήκει ὁ Ἰησοῦς καὶ ἔκραξεν λέγων, Ἐάν τις διψᾷ ἐρχέσθω πρὸς με καὶ πινέτω. ³⁸ ὁ πιστεύων εἰς ἐμέ, καθὼς εἶπεν ἡ γραφή, ποταμοὶ ἐκ τῆς κοιλίας αὐτοῦ ῥεύσουσιν ὕδατος ζῶντος. ³⁹ τοῦτο δὲ εἶπεν περὶ τοῦ πνεύματος ὃ ἐμελλόν λαμβάνειν οἱ πιστεύσαντες εἰς αὐτόν· οὕτω γὰρ ἦν πνεῦμα, ὅτι Ἰησοῦς οὐδέπω ἑδοξάσθη.

³⁷ Jaietako azken egunean, nagusienean, Jesusek zutik jarri eta oihi egin zuen, esanez: «Egarri dena betor niregana, eta edan beza ³⁸ niregan sinesten duenak. Liburu Santuek dioten bezala, ur biziko errekek jarioko zaizkio barru-barrutik».

³⁹ Harengan sinetsiko zutenek hartuko zuten Espirituaz esan zuen hori; izan ere, ez zen artean Espiriturik, Jesusen Jainko-aintza ez zelako oraindik azaldu.

Eg 4,32-35

32 Τοῦ δὲ πλήθους τῶν πιστευσάντων ἦν καρδία καὶ ψυχὴ μία, καὶ οὐδὲ εἷς τι τῶν ὑπαρχόντων αὐτῷ ἔλεγεν ἴδιον εἶναι ἄλλ' ἢν αὐτοῖς ἅπαντα κοινά. 33 καὶ δυνάμει μεγάλη ἀπεδίδουν τὸ μαρτύριον οἱ ἀπόστολοι τῆς ἀναστάσεως τοῦ κυρίου Ἰησοῦ, χάρις τε μεγάλη ἦν ἐπὶ πάντας αὐτοῦς. 34 οὐδὲ γὰρ ἐνδεής τις ἦν ἐν αὐτοῖς· ὅσοι γὰρ κτήτορες χωρίων ἢ οἰκιῶν ὑπῆρχον, πωλοῦντες ἔφερον τὰς τιμὰς τῶν πωπρασκομένων 35 καὶ ἐτίθουν παρὰ τοὺς πόδας τῶν ἀποστόλων, διεδίδετο δὲ ἑκάστῳ καθότι ἂν τις χρεῖαν εἶχεν.

³² Fededun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten. ³³ Apostoluek indar eta eragin handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren testigantza. Jendeak oso estimatuak zituen; ³⁴ izan ere, ez zen haien artean behartsurik, zeren lurrik edo etxerik zutenek, dena saldu eta salmentaren ordaina ³⁵ apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion.

Erm 8,18-24

18 Λογίζομαι γὰρ ὅτι οὐκ ἄξια τὰ παθήματα τοῦ νῦν καιροῦ πρὸς τὴν μέλλουσαν δόξαν ἀποκλυφθῆναι εἰς ἡμᾶς. 19 ἡ γὰρ ἀποκαταδοκία τῆς κτίσεως τὴν ἀποκάλυψιν τῶν νύκτων τοῦ θεοῦ ἀπεκδέχεται. 20 τῇ γὰρ ματαιότητι ἡ κτίσις ὑπετάγη, οὐχ ἐκούσα ἀλλὰ διὰ τὸν ὑποτάξαντα, ἐφ' ἑλπίδι 21 ὅτι καὶ αὐτὴ ἡ κτίσις ἐλευθερωθήσεται ἀπὸ τῆς δουλείας τῆς φθορᾶς εἰς τὴν ἐλευθερίαν τῆς δόξης τῶν τέκνων τοῦ θεοῦ. 22 οἶδαμεν γὰρ ὅτι πάσῃ κτίσις συστενάζει καὶ συνωδίνει ἄχρι τοῦ νῦν· 23 οὐ μόνον δέ, ἀλλὰ καὶ αὐτοὶ τὴν ἀπαρχὴν τοῦ πνεύματος ἔχοντες, ἡμεῖς καὶ αὐτοὶ ἐν ἐκείνοις στενάζομεν νύκτας ἀπεκδεχόμενοι, τὴν ἀπολύτρωσιν τοῦ σώματος ἡμῶν. 24 τῇ γὰρ ἐλπίδι ἐσώθημεν· ἐλπίς δὲ βλεπομένη οὐκ ἔστιν ἐλπίς· ὁ γὰρ βλέπει τίς ἐλπίζει;

¹⁸ Nire iritzian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira gero guregan azalduko den aintzaren aldean. ¹⁹ Izadia bera ere irrikaz dago, zain-zain, Jainkoak noiz agertuko zer den beraren seme-alaba izatea. ²⁰ Izadiak, bere benetako helburua galdua izan arren —ez bere gogoz, horretara behartu zuenarengatik baizik—, badu itxaropena ²¹ esklabotza eta hondamenditik askatua izan eta Jainkoaren seme-alaben aintzazko askatasunean parte izateko ²² Badakigu, izan ere, izadi osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. ²³ Eta hura ez ezik, geu ere bai: Espiritua lehen-dohaintzat hartu dugunok intzirika gaude geure barruan, Jainkoak noiz askatuko eta bere seme-alaba noiz egingo gaituen zain. ²⁴ Salbatuak gaude, bai, baina itxaropenetan bakarrik. Eta itxaro duguna begien aurrean bagenu, hori ez litzateke itxaropena izango, inork ez baitu itxaroten begien aurrean duena.

1 Ko 13,1-8a

1 Ἐὰν ταῖς γλώσσαις τῶν ἀνθρώπων λαλῶ καὶ τῶν ἀγγέλων, ἀγάπην δὲ μὴ ἔχω, γέγονα χαλκὸς ὃς ἤχων ἢ κύμβαλον ἀλαλάζον. 2 καὶ ἐὰν ἔχω προφητείαν καὶ εἰδῶ τὰ μυστήρια πάντα καὶ πᾶσα ν τὴν γνώσιν καὶ ἐὰν ἔχω πᾶσαν τὴν πίστιν ὥστε ὄρη μεθιστάναι, ἀγάπην δὲ μὴ ἔχω, οὐθέν εἰμι.

3 κὰν ψωμίσω πάντα τὰ ὑπάρχοντά μου καὶ ἐὰν παραδῶ τὸ σῶμά μου ἵνα καυχῶμαι, ἀγάπην δὲ μὴ ἔχω, οὐδὲν ὠφελοῦμαι.

4 Ἡ ἀγάπη μακροθυμεῖ, χρηστεύεται ἡ ἀγάπη, οὐ ζηλοῖ, [ἡ ἀγάπη] οὐ περπερεύεται, οὐ φυσιοῦται, 5 οὐκ ἀσχημονεῖ, οὐ ζητεῖ τὰ ἑαυτῆς, οὐ παροξύνεται, οὐ λογίζεται τὸ κακόν, 6 οὐ χαίρει ἐπὶ τῇ ἀδικίᾳ, συγχαίρει δὲ τῇ ἀληθείᾳ· 7 πάντα στέγει, πάντα πιστεύει, πάντα ἐλπίζει, πάντα ὁ πομένει.

8 Ἡ ἀγάπη οὐδέποτε πίπτει·

¹ Nahiz eta gizakien eta aingeruen hizkuntzez hitz egin, maitasunik ez badut, brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik ez naiz. ² Nahiz eta profezi dohaina izan, nahiz eta misterio guztiak eta munduko jakintza guztiak ezagutu eta mendiak lekuz aldatzeko adinako sinesmena izan, maitasunik ez badut, ez naiz ezer. ³ Dudan guztia behartsuen artean banatu eta neure gorputza erretzeraino emanik ere, maitasunik ez badut, ez naiz ezer.

⁴ Maitasuna eraman onekoa / eta bihozbera da; / ez du bekaizkeriarik, / ez handiusterik, ez harropuzkeriarik.

⁵ Ez da lotsagabea, ez berekoa, / ez haserrekorra; / kaltea ez du gogoan hartzen.

⁶ Ez da bidegabekeriak pozten, / baizik eta egian pozten da.

⁷ Maitasunak dena barkatzen du, / dena sinesten, dena itxaroten, / dena ongi eramaten.

⁸ Maitasuna ez da behin ere itzaltzen.

2 Ko 8,9

9 γινώσκετε γὰρ τὴν χάριν τοῦ κυρίου ἡμῶν Ἰησοῦ Χριστοῦ, ὅτι δι' ὑμᾶς ἐπιώχρυσεν πλοῦσιος ὄν, ἵνα ὑμεῖς τῇ ἐκείνου πτωχείᾳ πλουτήσητε.

⁹ Ezaguna duzue Jesu Kristo gure Jaunaren eskuzabaltasuna: aberats izanik, behartsu egin zen zuengatik, bere behartsu-izateaz zuek aberats egiteko.

Ga 5,13-24

13 Ὑμεῖς γὰρ ἐπ' ἐλευθερίᾳ ἐκλήθητε, ἀδελφοί· μόνον μὴ τὴν ἐλευθερίαν εἰς ἀφορμὴν τῇ σαρκί, ἀλλὰ διὰ τῆς ἀγάπης δουλεύετε ἀλλήλοις. 14 ὁ γὰρ πᾶς νόμος ἐν ἐνὶ λόγῳ πεπλήρωται, ἐν τῷ Ἀγαπήσεις τὸν πλησίον σου ὡς σεαυτόν. 15 εἰ δὲ ἀλλήλους δάκνετε καὶ κατεσθίετε, βλέπετε μὴ ὑπ' ἀλλήλων ἀναλωθῆτε. 16 Λέγω δέ, πνεύματι περιπατεῖτε καὶ ἐπιθυμίαν σαρκὸς οὐ μὴ τελέσητε. 17 ἡ γὰρ σὰρξ ἐπιθυμεῖ κατὰ τοῦ πνεύματος, τὸ δὲ πνεῦμα κατὰ τῆς σαρκὸς, ταῦτα γὰρ ἀλλήλοισ ἀντίκειται, ἵνα μὴ ἂ ἐὰν θέλητε ταῦτα ποιῆτε. 18 εἰ δὲ πνεύματι ἄγεσθε, οὐκ ἐστὲ ὑπὸ νόμον. 19 φανερά δέ ἐστιν τὰ ἔργα τῆς σαρκὸς, ἅτινά ἐστιν πορνεία, ἀκαθαρσία, ἀσέλγεια, 20 εἰδωλολατρία, φαρμακεία, ἐχθραὶ, ἔρις, ζηλος, θυμοί, ἐριθείαι, διχοστασίαι, αἰρέσεις, 21 φθόνοι, μέθαι, κ. ὅμοι καὶ τὰ ὅμοια τούτοις, ἃ προλέγω ὑμῖν καθὼς προεῖπον ὅτι οἱ τὰ τοιαῦτα πράσσοντες βασιλεῖαν θεοῦ οὐ κληρονομήσουσιν. 22 Ὁ δὲ καρπὸς τοῦ πνεύματος ἐστὶν ἀγάπη χαρὰ εἰρήνη, μακροθυμία, χρηστότης ἀγαθωσύνη, πίστις 23 πραῚτης ἐγκράτεια· κατὰ τῶν τοιούτων οὐκ ἔστιν νόμος. 24 οἱ δὲ τοῦ Χριστοῦ [Ἰησοῦ] τὴν σάρκα ἐσταύρωσαν σὺν τοῖς παθήμασιν καὶ ταῖς ἐπιθυμίαις.

¹³ Zuek, senideok, askatasunera deitu zintuzten Jainkoak; baina askatasun hori ez bekizue aitzakia izan grina txarren arabera bizitzeko; bestela baizik, maitasunak egin zaitzatela elkarren zerbitzari. ¹⁴ Zeren lege osoa betetzen baita, agindu bakar hau betez gero: Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala.

¹⁵ Baina elkarri hozka eta elkar irentsi beharrean bazabiltzate, azkenik elkar suntsituko duzue.

¹⁶ Beraz, hauxe diotsuet: Bizi zaitezte Espirituari dagokionez, eta ez giza grinei jarraituz. ¹⁷ Giza grinak Espirituaren aurkakoak dira eta Espiritua giza grinaren aurkakoa. Bi indar horiek elkarren aurkakoak dira; horrela, ez duzue nahi zenuketena egiten. ¹⁸ Espirituak gizatzen bazaituzte, ordea, ez zaudete legearen menpe.

¹⁹ Giza grinetatik sortzen diren egintzak ezagunak dira: lizunkeria, zikinkeria, jokaera biziotsua, ²⁰ idolatria, sorginkeria, etsaigoak, haserreak, bekaizkeria, gorrotoak, norgehiagokeria, alderdikeria, zatiketak, ²¹ ikusiezina, hordikeria, sabelkeria eta horrelakoak. Eta lehen esan nizuena diotsuet berriro ere: Horrela jokatzan dutenek ez dute Jainkoaren erreinua ondare jasoko.

²² Espirituaren fruitua, berriz, hau da: maitasuna, poza, bakea, pazientzia, bihotz ona, onginahia, leialtasuna, ²³ otzantasuna, bere buruaren jabe izatea. Ez da legerik horrelakoak gaitzetsiko dituenik. ²⁴ Eta Jesu Kristorenak direnek gurutzean hilarazi dute bekatuzko beren giza izaera beronen gurari eta grinekin.

St 2,1-4

¹ Ἀδελφοί μου, μὴ ἐν προσωπολημψίαις ἔχετε τὴν πίστιν τοῦ κυρίου ἡμῶν Ἰησοῦ Χριστοῦ τῆς δόξης. ² ἂν γὰρ εἰσέλθῃ εἰς συναγωγὴν ὑμῶν ἀνὴρ χρυσοδακτύλιος ἐν ἑσθίῃ λαμπρᾷ, εἰσέλθῃ δὲ καὶ πτωχὸς ἐν ῥυπαρᾷ ἑσθίῃ, ³ ἐπιβλέψῃτε δὲ ἐπὶ τὸν φοροῦντα τὴν ἑσθίαν τὴν λαμπρὰν καὶ εἰπῃτε, Σὺ κάθου ὧδε καλῶς, καὶ τῷ πτωχῷ εἰπῃτε, Σὺ στήθι ἐκεῖ ἢ κάθου ὑπὸ τὸ ὑποπόδιόν μου, ⁴ οὐ διεκρίθητε ἐν ἑαυτοῖς καὶ ἐγένεσθε κριταὶ διαλογισμῶν πονηρῶν;

¹ Ene senideok, ezin elkartuak dira Jesu Kristo gure Jaun aintzatsuagan duzuen fedea eta pertsonen artean bereizkeria egitea. ² Eman dezagun, esate baterako, zuen batzarrean bi gizon sartzen direla, bata aberatsa, urrezko eraztunez eta dotore jantzia, eta bestea pobrea, zarpail jantzia; ³ eta dotore jantzitakoari sekulako begiramenez esaten diozuela: «Zatoz, jar zaitez hemen, ohorezko tokian»; pobreari, berriz: «Hago hi hor zutik», edo: «Jar hadi lurrean, nire oinpekoaren ondoan»; ⁴ horrela jokatz, ez al zarete zeuen artean bereizkeriak egiten ari, eta ez al duzue irizpide okerrez epaitzen?

1 P 1,22-25

²² Τὰς ψυχὰς ὑμῶν ἡγνικότες ἐν τῇ ὑπακοῇ τῆς ἀληθείας εἰς φιλαδελφίαν ἀνυπόκριτον, ἐκ [καθαρῶς] καρδίας ἀλλήλους ἀγαπήσατε ἐκτενῶς ²³ ἀναγεννημένοι οὐκ ἐκ σπορᾶς φθαρτῆς ἀλλὰ ἀφθάρτου διὰ λόγου ζῶντος θεοῦ καὶ μένοντος. ²⁴ διότι

πάντα σὰρξ ὡς χόρτος
καὶ πάντα δόξα αὐτῆς ὡς ἄνθος χόρτου·
ἐξηράνθη ὁ χόρτος καὶ τὸ ἄνθος ἐξέπεσεν·
²⁵ τὸ δὲ ῥῆμα κυρίου μένει εἰς τὸν αἰῶνα.
τοῦτο δὲ ἐστὶν τὸ ῥῆμα τὸ εὐαγγελισθὲν εἰς ὑμᾶς.

²² Orain zuek, egiaren mezuari obedituz, zeuen barruak garbitu dituzue, senide bezala elkar benetan maitatzeko. Maita ezazue, bada, batak bestea bihotzez eta sutsu; ²³ izan ere, berriro jaio zarete, eta ez hazi hilkorretik, hilezkorretik baizik, bizia den eta betiko dirauen Jainkoaren hitzetik. ²⁴ Honelaxe dio Liburu Santuak ere:

Gizaki oro belarraren pareko da, / haren edertasuna / landako lorearena bezalakoa: / ihartzen da belarra, erortzen lorea;

²⁵ Jaunaren hitzak, ordea, betiko dirau.

Hitz hau, berriz, zuei hots egin zaizuen berriona da.

1 Jn 4,7-8

7 Ἀγαπητοί, ἀγαπῶμεν ἀλλήλους, ὅτι ἡ ἀγάπη ἐκ τοῦ θεοῦ ἐστίν, καὶ πᾶς ὁ ἀγαπῶν ἐκ τοῦ θεοῦ γεγέννηται καὶ γινώσκει τὸν θεόν.

8 ὁ μὴ ἀγαπῶν οὐκ ἔγνω τὸν θεόν, ὅτι ὁ θεὸς ἀγάπη ἐστίν.

⁷ Ene maiteok, maita dezagun elkar, maitasuna Jainkoarengandik baitator, eta maite duen oro Jainkoarengandik jaioa da eta ezagutzen du Jainkoa. ⁸ Maite ez duenak ez daki deus ere Jainkoaz, Jainkoa maitasuna baita.

Ap 1,12-17a

12 Καὶ ἐπέστρεψα βλέπειν τὴν φωνὴν ἣτις ἐλάλει μετ' ἐμοῦ, καὶ ἐπιστρέψας εἶδον ἑπτὰ λυχνί-
ας χρυσοῦς 13 καὶ ἐν μέσῳ τῶν λυχνιῶν ὅμοιον υἱὸν ἀνθρώπου ἐνδεδυμένον ποδήρη καὶ περιεζωσ-
μένον πρὸς τοῖς μαστοῖς ζώνην χρυσοῦν. 14 ἡ δὲ κεφαλὴ αὐτοῦ καὶ αἱ τρίχες λευκαὶ ὡς ἔριον λευ-
κόν ὡς χιών καὶ οἱ ὀφθαλμοὶ αὐτοῦ ὡς φλόξ πυρός 15 καὶ οἱ πόδες αὐτοῦ ὅμοιοι χαλκολιβάνῳ
ὡς ἐν καμίνῳ πεπυρωμένης καὶ ἡ φωνὴ αὐτοῦ ὡς φωνὴ ὑδάτων πολλῶν, 16 καὶ ἔχων ἐν τῇ δεξιᾷ
χερὶ αὐτοῦ ἀστέρας ἑπτὰ καὶ ἐκ τοῦ στόματος αὐτοῦ ῥομφαία δίστομος ὥς εἰς ἐκπορευομένη καὶ
ἡ ὄψις αὐτοῦ ὡς ὁ ἥλιος φαίνει ἐν τῇ δυνάμει αὐτοῦ.

17 Καὶ ὅτε εἶδον αὐτόν, ἔπεσα πρὸς τοὺς πόδας αὐτοῦ ὡς νεκρός.

¹² Atzera begiratu nuen, mintzo zitzaidan ahots hura norena ote zen ikusteko eta, itzultzean, urrezko zazpi argimutil ikusi nituen, ¹³ eta argimutilen erdian gizaseme antzeko bat, soineko luzez jantzia, bularpea urrezko gerrikoz lotua. ¹⁴ Haren buruko ilea zuria zen, artilea eta elurra bezalakoa, begiakugarra bezalakoak, ¹⁵ oinak labean garbituriko brontze goriaren antzekoak, haren ahotsa ur handiena bezalako burrunba. ¹⁶ Zazpi izar zituen eskuineko eskuan eta aho-biko ezpata zorrotza ateratzen zitzaion ahotik; aurpegia eguzkia indarrik handienez bezain argitsu zuen.

¹⁷ Hura ikustean, hila bezala erori nintzaion oinetan.

Ap 12,1-6

1 Καὶ σημεῖον μέγα ὤφθη ἐν τῷ οὐρανῷ, γυνὴ περιβεβλημένη τὸν ἥλιον, καὶ ἡ σελήνη ὑποκάτω τῶν ποδῶν αὐτῆς καὶ ἐπὶ τῆς κεφαλῆς αὐτῆς στέφανος ἀστέρων δώδεκα, 2 καὶ ἐν γαστρὶ ἔχουσα, καὶ κράζει ὠδίνουσα καὶ βασανιζομένη τεκεῖν. 3 καὶ ὤφθη ἄλλο σημεῖον ἐν τῷ οὐρανῷ, καὶ ἶδον ὁ δράκων μέγας πυρρός ἔχων κεφαλὰς ἑπτὰ καὶ κέρατα δέκα καὶ ἐπὶ τὰς κεφαλὰς αὐτοῦ ἑπτὰ διὰ ἀδήματα, 4 καὶ ἡ οὐρὰ αὐτοῦ σύρει τὸ τρίτον τῶν ἀστέρων τοῦ οὐρανοῦ καὶ ἔβαλεν αὐτοὺς εἰς τὴν γῆν. καὶ ὁ δράκων ἔστηκεν ἐνώπιον τῆς γυναικὸς τῆς μελλούσης τεκεῖν, ἵνα ὅταν τέκῃ τὸ τέκνον αὐτῆς καταφάγῃ. 5 καὶ ἔτεκεν υἱόν ἄρσεν, ὃς μέλλει ποιμαίνειν πάντα τὰ ἔθνη ἐν ῥάβδῳ σιδηρᾷ. καὶ ἠρπάσθη τὸ τέκνον αὐτῆς πρὸς τὸν θεὸν καὶ πρὸς τὸν θρόνον αὐτοῦ. 6 καὶ ἡ γυνὴ ἔφυγεν εἰς τὴν ἔρημον, ὅπου ἔχει ἐκεῖ τόπον ἡτοιμασμένον ἀπὸ τοῦ θεοῦ, ἵνα ἐκεῖ τρέφωσιν αὐτὴν ἡμέρας χιλίας διακοσίας ἑξήκοντα.

¹ Seinale handi bat agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia, ilargia oinpean eta hamabi izarreko koroa buruan. ² Haurdun zegoen, eta erdiminez eta haurgintzako oinazez garrasika ari zen. ³ Beste seinale bat agertu zen zeruan: herensuge gorri handi bat, zazpi buru eta hamar adar zituen, eta buruetan koroa bana. ⁴ Bere isatsez zeruko izarren herena herrestan hartu eta lurrera jaurti zuen.

Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aitzinean gelditu zen, jaio bezain laster semea irensteko. ⁵ Emakumeak semea izan zuen, herri guztiak burdinazko makilaz gobernatuko zituen. Semea hartu eta Jainkoaren tronuraino eramane zuten. ⁶ Emakumeak, berriz, basamortura egin zuen ihes; han bazter bat prestatua zion Jainkoak, mila berrehun eta hirurogei egunez bertan bizi zedin.